

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak joan den apirilaren hogeita bian egindako azken bilkuran, berretsi zuela, izen ofiziala *Olaeta* duen Legutioko kontzejuaren euskal izena **Oleta** dela, Batzordeak bi mila eta biko ekainaren hogeita lauan ebatzi zuen bezala.

Nahiz eta *Olaeta* euskal izena izan *-ae-* bokal taldea duten euskal toponimoetan aspaldikoa da *-a-*ren galera eta ezin zaio leporatu azken urteetako ahoskera erlaxatuari. Konparazioarako Barrundiako *Ozaeta* herria ere *Ozeta* deitu izan da euskaraz eta horrela ageri da dokumentazioan toponimia txikian. Gure kasuan Oletako semea den Pedro Pujana Agirregabiria idazle eta euskaltzain osoa zenaren lekukotza dugu.

Ez da herri hau *Olaeta*>*Oleta* aldaketa duen leku bakarra eta Aberasturin, Ozekan eta Laudion ere baditugu holakoak.

Honekin batera doa, informazio osagarri gisa, Onomastika batzordeak bi mila eta biko ekainaren hogeita lauan bertako kontzejuari igorri zion agiriaren kopia.

Eta kontzejuari igortzeko izenpetzen du Bilbon, bi mila eta bederatziko urriaren hogeita hamarrean.



Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzorde-idazkaria

O.I.



Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua